



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

MAYA KOADERNOA

GIDA PRAKTIKOA
IKASTURTEAREN
HASIERARI BURUZ

2026
2027



JOAQUÍN MAYA

Escuela especial de música
Musika eskola berezia

Edukiak

01

AURKEZPENA

02

IKASLE BERRIAK
(INSTRUMENTU
AUKERATZEA)

03

IKASLE BERRI
ETA IKASLE
DIRENENDAKO
INFORMAZIOA

04

INFORMAZIO
PRAKTIKOA

01 AURKEZPENA

ONGIETORRIA

Joaquín Maya Musika Eskolako hezkuntza-komunitate osoaren izenean, ongi etorri 2026-2027ko ikasturtera.

Koaderno honetan informazio orokorra aurkituko duzue, baita ikasturtearen hasierari buruzko informazio garrantzitsua ere. Informazio gehiago jasotzeko edo azken berriak ezagutzeko gure webgunea bisitatu dezakezue.

Ikasturte hau oso berezia da, Eskolaren sorreraren 40. urteurrena ospatzen baitugu. 1986tik orain arte 10.000 pertsonak baino gehiagok ikasi dute. Pertsona guztioi zuen konfiantza eskertzen dizuegu eta musikaz eta ilusioz beteriko ikastaroa opa dizuegu.

*Luis Notario Ibarrola,
Eskolako zuzendaria*



Eskola

Joaquín Maya Musika Eskola Berezia Iruñeko Udaleko Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorraren mende dago.

1986an sortu zen, eta geroztik, milaka ikasle eta familiak musikaz gozatu dute bertan.

Gaur egun 1.000 ikasle baino gehiago eta 50 irakasle baino gehiago ditu, administrazio eta zerbitzuetako langileez gain.

Eskolak 23 instrumentu-espezialitate eta hainbat irakasgai eskaintzen ditu, hala nola Musika-hizkuntza, Ganbera Musika, Konboak, Korua eta Harmonia. 25 instrumentu- eta koru-talde baino gehiago ditu, non musika-interpretazioa taldean esperimentatu baitaiteke, eta aldizka ikasle eta irakasleek parte hartzen duten entzunaldi eta kontzertu ugari programatzen ditu.

Gehiago ezagutu! (Eskolaren webgunea)

02 IKASLE BERRIAK

*Irailaren 1etik 7ra. HASTAPEN-MAILAn
matrikulatutako ikasleentzat bakarrik.*

1.FASEA. ONGIETORRI-KONTZERTUAK

Irailaren 1ean, arratsaldean, ongietorri-kontzertuak (INSTRUMENTU-ERAKUSTALDIA) egingen dira, Musika Eskolako ekitaldi-aretoan. Horrela, espezialitate bakoitzeko irakasleak ezagutzeko aukera izanen duzue, bai eta instrumentu guztiak zuzenean ikusi eta entzuteko ere, instrumentu-eskaera egin baino lehen.


Ikasle berri bakoitzak zein ordutegitan joan beharko duen Eskolako webgunean argitaratuko da, eta posta elektronikoko bidez ere igorriko da, **abuztuaren 24an**.

Abuztuak 24

ONGIETORRIKO
KONTZERTUEN
ORDUTEGIAK
KONSULTATZEA.

Irailak 1

ONGIETORRI-
KONTZERTUAK.



<https://www.pamplona.es/escuelademusica>

2.FASEA. INSTRUMENTU-ERRONDA

Irailaren 2, 3, 4 eta 7an, ikasle berriek INSTRUMENTU-ERRONDA egingen dute. Ordu eta laurdeneko 4 saio izanen dira gutxi gorabehera, eta instrumentu-ikasgeletan egingen dira. Ikasle berriek aukera izanen dute instrumentuak hurbilagotik ezagutzeko, baita irakasleak ere.

Erronda antolatzeko, **ikasle bakoitzari talde bat esleituko zaio**, bisita-ordutegi zehatz batekin. Taldeen zerrenda eta Errondaren ordutegia **abuztuaren 24an**, argitaratuko dira, Eskolako iragarki-taulan eta webgunean.

Abuztuak 24

KONTSULTATU
ESLEITUTAKO TALDEA
ETA ORDUTEGIAK.

Irailaren 2tik 7ra

INSTRUMENTU-
ERRONDA.
4 EGUNETAN JOAN
BEHAR DA.



3.FASEA. INSTRUMENTU-ESKAERA (WEBGUNEKO FORMULARIOA) ETA ESLEIPENA

Irailaren 7tik 8ra, instrumentu-eskaera egingen da webguneko formulario baten bidez. Esteka Eskolaren webgunean argitaratuko da. **Nahitaez 10 instrumentu hautatu behar dira**, lehentasun-ordenaren arabera.

Eskaera egiten ez dutenak onartuen zerrendako azken postura igaroko dira, zozketan eskuratu zuten zenbakia kontuan hartu gabe, eta eskaera egin duten ikasleen instrumentu-esleipena amaitu eta gero bete gabeko toki gehien dituen instrumentua esleituko zaie.

Instrumentuak ekainean egindako zozketaren hurrenkeraren arabera esleituko dira. Ikasleak hautatutako 10 instrumentuetatik bakar baterako ere tokirik ez badago, tokiak bete gabe dituen beste instrumentu bat esleituko zaio.

Esleitutako instrumentuen zerrenda **irailaren 10ean** argitaratuko da, arratsaldean, Eskolaren webgunean, eta bertan instrumentuko irakaslea eta zein ikasgelatan ematen dituen eskolak adieraziko dira.

**Irailaren 7tik
8ra**

**10 INSTRUMENTU
ESKATU, WEBGUNEKO
FORMULARIO BETEZ**

Irailak 10

**ESLEITUTAKO
INSTRUMENTUEN
ZERRENDA
(WEB)**



Zalantzak? escuelamusica@pamplona.es

03

IKASLE BERRI ETA IKASLE DIRENENDAKO INFORMAZIOA

1. MUSIKA-HIZKUNTZAKO, KORUKO ETA HARMONIAKO ORDUTEGIAK

Ekainaren 30ean, Eskolaren webgunean, matrikulatutako ikasleek ikasiko dituzten irakasgaien zerrenda (espediente zenbakiaren hurrenkeran) argitaratuko da. Musika-hizkuntza, Koru eta Harmonia irakasgaietarako, esleitutako taldea eta ordutegia adieraziko dira.

2. ESKAERAK, MUSIKA-HIZKUNTZA, KORU ETA HARMONIAKO TALDEZ ALDATZEKO.

Epea: **abuztuaren 17tik irailaren 2ra**. Ez da onartuko eskaerarik epez kanpo. Aldaketa-eskaera egiteko formulario bat bete behar da: Eskolaren webgunera sartu eta bertan eskuratu daiteke.

BEHIN BETIKO ORDUTEGIEN ETA MUSIKA-HIZKUNTZA, KORU ETA HARMONIAKO TALDEEN ZERRENDAK Eskolaren webgunean argitaratuko dira **irailaren 10ean, arratsaldean**.

Ekainak 30

TALDEEN ORDUTEGIAK
(ARGITARATZEA)

**Abuztuaren
17tik irailaren
2ra**

ORDUTEGI ALDAKETA
(ESKAERA)

Irailak 10

BEHIN BETIKO
ZERRENDAK,
ALDEKETEKIN



TALDE ALDAKETAK: OHIKO GALDERAK



KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Musika-hizkuntzako talde bakoitzak hizki bera duen Koru-talde bat du esleituta. Adibidez, Musika-hizkuntzako 1. mailako A taldeari Koruko 1. mailako A taldea dagokio. Ezin da Musika-hizkuntza ikasi talde batean eta Korua beste batean.

ZER TALDE ESKATU DITZAKET?

Kontuan hartu webguneko formularioan agertzen den **baliokidetza-taula**. Ezin da eskatu baliokidetza-taulan proposatzen ez den talde bat.

ALDEZ AURRETIK DATUREN BAT BEHAR DUT ESKAERA EGITEKO?

Bai. Espediente-zenbakia behar duzu. **Ekainaren 30ean** SMS bat jasoko duzu zure espediente-zenbakiarekin. Aurreko ikasturteko noten buletinean ere aurki dezakezu (ikasle direnak).

NOLA EGIN ALDAKETA-ESKAERA?

Abuztuaren 17an Eskolaren webgunean dokumentu bat argitaratuko da aldaketa egiteko eskaera-formulariora eramanen zaituzten estekekin.

Abuztuaren 17tik irailaren 2ra dagokizun estekan sakatu beharko duzu, mailaren arabera. Behin prozesua amaituta, egiaztapen-ohar bat ikusiko duzu eskaera jaso dugula baieztatzeko.

3. INSTRUMENTU-ORDUTEGIEN ETA -TALDEEN ESLEIPENA.

Irailaren 11n, arratsaldean, instrumentuko irakasleek beren ikasleei **eginen diete harrera instrumentuko eta taldeetako ordutegia beraiekin zuzenean zehazteko**. Eskolako Ikasketa Planean jaso bezala, bigarren zikloko ikasleek derrigorrean egin behar dute Taldeak irakasgaia (bandak, konboak, ganbera-musika, korua...). Ganbera-musika ikasi nahi izanez gero, 4.10 ikasgelara joan beharko lukete.

Ordutegia **aukeratzeko hurrenkera** jaiotegunaren arabera ezarriko da, gazteenetik hasita.

Garrantzitsua: bilerara joateko ordutegia kontsultatu behar da. Ordutegia Eskolaren webgunean argitaratuko da **irailaren 10ean**.

Garaiz joateko eskatzen dizuegu.

Irailak 11

ORDUTEGIEN
ESLEIPENA, AURREZ
AURRE (IRAILAREN 11N
ARGITARATUA)

Irailak 14

KLASEEN HASIERA



4. BAJA-ESKAERA ETA MATRIKULAREN ITZULKETA

Matrikularen zenbatekoa itzultzeko eskatzeko muga-eguna: irailak 30.

Eskolan ez jarraitzea erabaki eta matrikula deuseztatu nahi duten ikasleek ordaindutakoa itzultzeko eskatzen ahalko dute, administrazio- eta kudeaketa-gastuei dagokien zenbatekoa salbu (40 euro), Iruñeko Udaleko edozein erregistrotan (fisiko zein elektronikoa) eskabidea aurkeztuta. Halaber, erregistroan eman beharko dute, baja eskatzeko eskabidearekin batera, transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea, non zehaztuko baita zein kontutan jaso nahi den itzuli beharrekoa. Bi eskabideak Eskolaren webgunean daude eskuragarri.

Irailak 30

BAJA-ESKAERA ETA
MATRIKULAREN
ITZULKETA



04 INFORMAZIO PRAKTIKOA

- **Helbidea:** Chinchilla Jeneralaren kalea 6, beheko solairua (sarrera, Aita Moret kaletik) – Iruña
- **Telefonoa:** 948420985 (administrazioa) eta 948420986 (telefonogunea)
- **Helbide elektronikoa:**
escuelamusica@pamplona.es (ADMINISTRAZIOA)
- **Ordutegia:**
 - **Eskola:** Astelehenetik ostegunera: 8:30 – 21:30. **Ostiraletan 8:30–20:30.** (Ikasketa gelak, Astelehenetik ostegunera 9:00 – 21:00. Ostiraletan 9:00–20:30)
 - **Administrazioa:** Astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:30etara.
- **Beste kontaktu batzuk:**
 - direccion.escuelamusica@pamplona.es
 - jefaturaestudios.escuelamusica@pamplona.es
 - secretaria.escuelamusica@pamplona.es
- **YouTube:** <http://www.youtube.com/user/aytopamplona>
- **Instagram:** https://www.instagram.com/Pamplona_ayto/
- **Facebook:** <https://www.facebook.com/aytopamplona/>
- **Eskolako ARAUDIA:** <https://www.pamplona.es>



<https://www.pamplona.es/escuelademusica>